Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josu Alberdi Arregi

Zarautz, Gipuzkoa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaio zen lau anai-arrebaren artean bigarren. Gabon gauean jaio zenez, saria ekarri zuen etxera: gabonetako saskia. Aitona jostuna zuen eta hark erakutsi zion perretxikoak biltzen; elkarrekin joaten ziren Zarautz inguruko basoetara eta hala errotu zitzaion bizi guztirako zaletasuna. Arrantzan ere umetatik ikasitakoa, bizibidea ateratzeko era garrantzitsua izan zen zenbait garaitan. Hasieran Zarauzko fraideetan ikasi zuen; eta geroago Donostiako lanbide-eskolan ibili zen, argiketari izateko ikasten. Gerora, industri peritu ikasketak egin zituen eta lana ez zitzaion falta izan; askotan bidaiatzea tokatu zitzaion. Gerra osteko gosea eta gerora etorritako krisi eta greba garaiak ondo ezagutu izan ditu. Ezkondu eta gero ere Zarautzen bizitzen jarraitu izan du.

Zintak

ZAR-142

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-09-14
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ZAR-143

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-09-14
- **Iraupena**: 33 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Zarauzko bizimodua lehen

- **Erref**: ZAR-142/001
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Zarautz lehen nolakoa zen deskribatzen du: orain baino etxe gutxiago eta fabrika gehiago zegoen. Fabriken eta tailerren izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa
Gu gaztiak giñanian, ziharo diferentia zan Zarautza. Oseake oain ikusten dian /ikusteiyan/ bloke hauek eta, “no había nada de eso”. Txaletak, arbol earrak... osea, txikiya zan. Ta gero, industria bazan mueblia asko, mueblia kantidadia zan. Geo sartu zan pixkat burniya, eta orduan in zian fabrika dezentiak: Antuñano, ta “Talleres auxiliares de fundición”, Alfa muebletakua... asko, asko zauden. Ta hori geo ta... behera jun da, mueblia ya desaparezitu da ta burniya´re ya fabrikaik gabe geatu da herriya. Oso... Sentido hortan jaitsi in da. Oain, kamareruak eta hotelak eta... zea hoiek bai, “pero lo demás, fuera”.

2. Fraideen gau-eskolak

- **Erref**: ZAR-142/002
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:01:11. **Bukatu**: 00:02:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Fraideekin ikasi zuen eskolan. Fraideek gau-eskolak jarri zituzten lanbideak erakusteko.

3. Kultura musikal handia Zarautzen

- **Erref**: ZAR-142/003
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:02:14. **Bukatu**: 00:04:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Zarautzen kultura musikal handia egon izan da. Musika-bandak prestigio handia zuen. Don Fernando apaizak lan handia egin zuen musika erakusten, gerora koruan sartzen ziren ume haiek. Lehen taberna giroan gehiago abesten zen.

4. Mezara nahitaez joan behar

- **Erref**: ZAR-142/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:05:22. **Bukatu**: 00:06:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehen derrigortu egiten zituzten meza nagusira joaten; kontrolatu egiten zuten, gainera, nor joaten zen. Meza ostean "Viva España" abestu behar izaten zuten.

5. Euskaraz hitz egitea makurkeria zenekoa

- **Erref**: ZAR-142/006
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:06:32. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan erdaraz hitz egin behar izaten zuten. Mutilek beraien artean euskaraz egiten zuten, baina neskek dena erdaraz. Lehen makurkeria zen euskaraz hitz egitea. Euskaraz hitz egiten zutenei burla egiten zitzaien; batzuek hain gaizki pasa zuten, ez baitzieten seme-alabei euskara erakutsi.

6. Euskararekiko jarrera herrian

- **Erref**: ZAR-142/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:09:44. **Bukatu**: 00:12:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten eta euskaraz egiten bazuten zigorra jartzen zieten: bale gorriaren zigorra azaltzen du. Mutilek, hala ere, euskarari eutsi zioten Zarautzen. Etxeko giroak zeresan handia zeukan euskararekiko jarreran. Emakumeek Zarautzen ez zuten euskaraz egiten normalean.

7. Umetan perretxikoak biltzen

- **Erref**: ZAR-142/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Lehen lantegietarako egurra inguruko basoetatik eta Nafarroatik ekartzen zuten. Lehen Zarauztik Pagoetaraino basoa zegoen eta Josu eta bere senideak perretxiko bila joaten ziren hara aitarekin. Aitonak erakutsi zion Josuri perretxikoak biltzen.

8. Perretxikoak non diren jakin egin behar

- **Erref**: ZAR-142/012
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:17:15. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Hainbat lekutara joan izan da perretxiko bila aitonarekin. Behin Lekunberrira lan-kontuengatik joan eta trukean perretxikoak biltzera eraman zituztenekoa kontatzen du. Perretxikoak non diren jakin egin behar da.

9. Perretxiko motak

- **Erref**: ZAR-142/013
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:22:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Perretxikoak zuhaitz azpian egoten dira; nola bilatzen diren azaltzen du. Perretxiko motak aipatzen ditu: onak jaso arren, txartu egin daitezke denborarekin.

10. Perretxikoak biltzeko jakin beharrekoak

- **Erref**: ZAR-142/015
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:22:48. **Bukatu**: 00:24:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Txiki-txikitatik ikasi zuen Josuk perretxikoak biltzen, aitonak erakutsi zion. Perretxiko bila joateko garai onena noiz izaten den azaltzen du.

11. Perretxikoak biltzen eta zaintzen

- **Erref**: ZAR-142/016
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:24:16. **Bukatu**: 00:26:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Perretxikoak biltzeko, moztu egin behar dira, ez dira errotik atera behar, bestela ez dira berriro jaiotzen. Ganaduaren hondakinak oso kaltegarriak dira perretxikoentzat.

12. Txipiroiak biltzera denak

- **Erref**: ZAR-142/018
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:26:34. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:
Lehen moila txalupaz beteta egoten zen, eta lana bukatu ostean denak txipiroi bila joaten ziren egunero. Handik ateratako irabaziak handiagoak ziren tailerrean lortutakoak baino. Lehen txipiroi asko harrapatzen ziren.

13. Kostako belarrak erretzearen ondorioak

- **Erref**: ZAR-142/019
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:29:02. **Bukatu**: 00:31:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:
Lehen arrain asko zegoen kostan; baina lixibaren ondorioz, uretako belarrak erre egin dira eta orain arrainek ez dute non ezkutatu eta non jan. Lehen harraldean harrapatzen zituzten olagarroak; orduan erabiltzen zuten teknika azaltzen du.

14. Zarauzko ibaia garai batean garbia zen

- **Erref**: ZAR-142/020
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:31:46. **Bukatu**: 00:33:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Umetan Zarauzko ibaian karramarro bila aritzen ziren; baina gerora ibaia erabat zikindu zen eta arrainak desagertu egin ziren handik. Zarauzko ibaiaren izenari buruz hitz egiten du.

15. Lehengo arrainak eta arrantzarako teknikak

- **Erref**: ZAR-142/021
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:33:13. **Bukatu**: 00:34:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:
Lehen hainbat arrain klase zeuden Zarautz inguruko kostan eta haien izenak aipatzen ditu. Arrantzarako teknikak azaltzen ditu.

16. Txangurrua harrapatzeko teknikak

- **Erref**: ZAR-142/022
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:34:53. **Bukatu**: 00:36:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:
Txangurrua harrapatzen zuten lehen Zarautz inguruan eta hartarako zer teknika erabiltzen zuten azaltzen du.

17. Sardexkak eta urpeko arrantza

- **Erref**: ZAR-142/023
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:36:28. **Bukatu**: 00:38:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:
Arrainak harrapatzeko sardexkak erabiltzen zituzten askotan; gerora, urpeko arrantza etorri zen, baina denborarekin arrainek ikasi dute arriskua non dagoen.

18. Urbian lotan

- **Erref**: ZAR-142/024
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:38:22. **Bukatu**: 00:40:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Mendian eta arrantzan asko ibilitakoa da Josu. Behin Urbiara joan eta hotz izugarria egin zienekoa kontatzen du.

19. Urbian hanka hautsi zueneko komeriak

- **Erref**: ZAR-142/025
- **Iraupena**: 0:04:53. **Hasi**: 00:40:31. **Bukatu**: 00:45:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Behin Urbiara txangoan joan zirenean, hanka hautsi zuen Josuk. Handik etxerainoko bidea odisea izan zen eta orduko nondik norakoak kontatzen ditu. Azkenean, ospitalera eraman zuten eta hain zegoen nekatuta, lo hartu baitzuen bertan.

20. Hankan eskaiola eduki arren, ezin geldi egon

- **Erref**: ZAR-142/026
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:45:24. **Bukatu**: 00:46:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Hanka hautsi zuen batean, eskaiola jarri zioten, baina perretxiko bila joaten zenez hala ere, eskaiola hondatu egin zitzaion. Azkenean, denbora baino lehenago kendu zioten eskaiola eta urtebete eman zuen hankak berriro indarra hartu arte.

21. Gose garaiko ohiturak barru-barruan

- **Erref**: ZAR-142/029
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:49:37. **Bukatu**: 00:50:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostean gosea pasa zuten eta oraindik orduko sentsazioa geratu omen zaie, dena jateko.

22. Ostegun arratsaldetako plana: janaria lapurtzea

- **Erref**: ZAR-142/032
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:52:38. **Bukatu**: 00:54:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan eta beti izaten zuten plan bera: janaria lapurtzera joatea. Behin sagar-lapurretan Toritorekin joan zireneko anekdota gogoan du.

23. Moila gaineko mahastiak

- **Erref**: ZAR-142/034
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:54:23. **Bukatu**: 00:55:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Zarauzko moila gainean, mahastia zegoen eta beraiek hango mahatsa lapurtzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com